

Ikastaroa Metalografia: laginak prestatzea eta mikroegiturak interpretatzea (Streaming)

Gaia Ingeniaritza Mekanikoa eta Fabrikazio Prozesuak

ECTS/orduak 8 ORDU

Egutegia 2022/01/24 - 2022/01/25 As-At

Ordutegia 14:30-18:30

Hizkuntzak Gaztelania

Modalitatea Online

Prezioa 260 €

Helburuak

Ikastaroa online egingo da (streaming) plataforma birtual baten bidez (Zoom).

Toki-kopuru mugatua (12 pertsona)

Metalografia metalen barne-eraketa aztertzen duen zientzia da, eta barne-eraketa hori beren propietate fisiko eta/edo mekanikoekin erlazionatzen du.

Azterketa metalografiko bat egiteko, aztertu beharreko metalaren lagin adierazgarri bat prestatu behar da. Prestakuntzak kontu handiz egin behar da, materialaren barne-ezaugarriak ez ukitzeko edo aldatzeko.

Lagin batean ikusitakoa behar bezala interpretatzeko, metalari buruz ahal den informazio guztia (konposizioa, tratamendu termikoa, lan baldintzak...) eta metalurgiari buruzko ezagutza onak behar dira.

Alderdi horiek kontuan hartuta, ikastaro honetarako helburu hauek ezarri dira:

- Prestakuntza metalografikoaren prozesua deskribatzea, eta emaitza onak lortzeko bete behar diren alderdiak azpimarratzea.

- Saiakuntza metalografikoen emaitzak interpretatzea, hainbat metaletako kasu praktikoak aztertuz.

Nori zuzendua

Laborategiko arduradunak eta teknikariak.

Kalitate kontroleko arduradunak eta teknikariak.

Egitaraua

- Teknika metalografikoak: laginak prestatu eta erasotzea eta analisi mikroskopikoa.
- Altzairu-mikroegituren interpretazioa
- Burdin galdategietako mikroegituren interpretazioa
- Aluminio-aleaziozko mikroegituren interpretazioa
- Kobre-aleaziozko mikroegituren interpretazioa

Irakasleak

Gomez Rodriguez, Xabier

<https://www.mondragon.edu/cursos/en/topics/mechanical-engineering-and-manufacturing-processes/course/metalografia-preparacion-de-muestras-e-interpretacion-de-microestructuras-streaming>